

# Diskoak

IKER BARANDIARAN

## Kantagintzarako bidean azken estazioa



### Estazioa.

Jon Miner & Intxixu Lotien banda.  
Autoekoizpena.  
Iraupena: 51'07". 5 euro.

ERRENTERIAKO Jon Miner zakur zaharra da euskal musikaren alorrean. Talde askorekin gitarra jotzaile aritu da eta soinu teknikari gisa beste batzuen maketa eta diskoak grabatu ditu. Azken urteotan, baina, lagun batzuekin Intxixu Lotien Banda osatu eta frontman lana egiteari ekin dio, mikrofonoa ere bereganatuz. Honako lanean hainbat euskal idazleren (Castillo Suarez, Miren Agur Meabe, Koldo Izagirre, Igor Estankona...) poemak hartu eta bestelako bizi-

tza eman die musikatzuz. Bada rock'n'roll gitarreroa duen piezarik, Stones eta Neil Young ez daude urrun jomugatik, blues eta countryaren eremuak laztantzen dituenik ere aurki daiteke; eta Britainia Handiko new wavearekin, bossarekin, cha-cha-charekin eta elektro-poparekin ere ausartu da. Eskaintza xumea dela esango du, baina aldi berean gertukoa eta sinesgarria da.

[www.myspace.com/jonminer](http://www.myspace.com/jonminer)

### Jon Miner

## «Kezkutzen nau euskaraz egiten den musikaren presentzia bermatuta ez egoteak»

Denbora luzea daramazu musikagintzan. Negozio honetan "negar egin gabe" lor daiteke arreta?

Nire lana helburu terapeutiko batetik hasten da, norberak bere buruari jartzen dion erronka moduan. Ni musikazalea naiz, baina kezkutzen nau musikatik bizi nahi duen musikari euskaldunon ongizateak. Baita euskaraz egiten den musikaren presentzia bermatuta ez egoteak ere. Gure komunitateak babes legeak behar ditu, kuotena izan daiteke irteeretako bat.

**Erratuta nabil diskoan Neil Young urrun ez dabilela badiot?**

Ez zabiltza urruti. Grungearen aitabitxia izanda, zenbait kanten soinu kontzeptutik akaso bai. Baina ez da oso urrutira joan behar erreferentziak aurkitzeko; beste ikuspegi minimalistagoak ere kontuan ditut. Adibidez, berriki joan



zaizkigun kantagintzaren ikonoak, gure erreferentzi gertukoak. ARGIAN bertan Laboari irakurri ahal izan nion gauzak ondo esplikatzen jakingo balu ez lukeela kantatuko. Izugarri identifikatuta sentitzen naiz.

**Hemen gauak lau ertz ditu kantak beste aita batena dirudi. Nola jaio zen?**

Ilusio Faltsuak taldean ari nintzela, punk-rock kanta bat egin nuen, eta

Mikel Ibarguren poemak txertatu zion. Ez genuen inoiz kaleratu, baina urteekin berreskuratu, berrarmonizatu, bossa erritmora bideratu eta, nola diren gauzak, kanta honek eman zidan beste poemak musikatzeko ideia; aldaketa ekarri zuen nigan.

**Estazioa grabatu ostean, zer tren hartuko duzu orain?**

Ni neu konturatu gabe, *Estazioa* niregan egon den

gatazkaren erakusle izan da: talde moduan genekarren dinamika eta bakarlari moduan egindako kantak. Eta bakarlaria gailentzen ari da. Disko berriaren zirriborroa jada egina dago eta orain kantak desitxuratzeko eta hustuketa lanean ari naiz. Desberdina izango dela uste dut; hasteko pertsonalagoa. Aldi berean, kantatzen ikasten ari naiz eta hori erronka desberdina da. ■

